

Eskoriatzak 6 eta 12 urtekoentzat Gabonetako marrazki lehiaketa prestatu du

Lanak liburutegian edo ludotekan aurkeztu beharko dituzte abenduaren 5 a baino lehen

Eskoriatza. Ohiturari jarraituz, Eskoriatzako Udaleko Kultura sailak Egin zure Gabonetako marrazkia izeneko lehiaketa jarri du abian. Sariketa hau sei eta hamabi urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

Proposamenak ludoteka edo liburutegietara eraman beharko dituzte abenduaren 5a baino lehen, eta marrazki bakoitzaren atzealdean egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta maila jarri beharko dituzte. Era berean, maila bakoitzezko parte-hartzaile guztien artean sari bana zozkatuko dute eta horrez gain, aurkeztutako marrazki guztiekin erakusketa egingo dute Gabonetan.

Orri-puntuak

Bestalde, urtero Kultura saila eta liburutegiko zerbitzueterako orri-puntuak erosten dituzte. Aurten, aldiz, espresuki diseinatuak izatea erabaki dute eta horretarako, deialdia zabaldu dute nahi duten guztiak euren ideiak proposatu ditzaten.

Lehiaketa honetan edozein lagunek esku hartu ahal izango du, hala ere, antolatzaileek adierazi zuten baldintza batzuk bete beharko dira: orri-puntuaren neurria 21x5,50 zentimetrokoa izan beharko da, eta teknika eta gaiak libreak izango dira. Lanak liburutegian jasoko dituzte azaroaren 30a baino lehen.

Kasu honetan, proposamen guztiak izen barik aurkeztu beharko dira, baina atzeko aldean lelo bat idatzirik. Irabazleari 300 euroko saria emango diote. >a.d.